AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2110

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 11koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2008ko uztailaren 30eko ebazpena aldatzen duena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Goi-mailako Teknikarien Kidegoan (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua Aukeran) sartzeko hautaketa-prozesuan aukeratutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin-behineko zerrenda ematen da aditzera.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko urriaren 30eko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Goi-mailako Teknikarien Kidegoan (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua Aukeran) sartzeko hautaketa-prozesurako deia egin zen. Agindu hori 2007ko azaroaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

2013ko urtarrilaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda eta eskainitako lanpostuak, eta lanpostuak hautatzeko hamar (10) egun naturaleko epea ezarri zen. Ebazpen hau, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 353/2009 epaia betez eman zen.

Ebazpen honetan xedatzen denaren arabera, bakarrik burutu behar dute lanpostua aukeratzeko izapidea, epaiaren ondorioz, 2008ko esleipenean eskaini ez zitzaizkien lanpostuak eskatzeko aukera duten izangaiek. Egoera horretan ez dauden izangaiei dagokienez, indarrean dirau egindako aukeraketak.

Deialdiaren oinarrien 8.4 atalari jarraituz, lanpostuak hautatu eta aukeratutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin-behineko zerrenda egin ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, ebazpen bidez, zerrenda hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aukeratutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin-behineko zerrendaren aldaketa onartzea, I. eranskinean agertzen diren pertsona eta lanpostuak erantsirik eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, (www.ivap.org) web orrian eta IVAPeko iragarkitauletan argitaratzeko agindua ematea.

Bigarren artikulua.– Hamar (10) egun balioduneko epea ezartzea aipatutako behin-behineko zerrendaren aldaketaren aurka erreklamazioak aurkezteko.

Hirugarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari dagokio epaia betearazteko izapideetan sor litekeen guztiaz arduratzea, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 11.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

I. ERANSKINA

ESLEIPEN-ZERRENDA

NAN	Izen abizenak	Lanp	Lanpostuaren izena	Dot	Saila/Erakundea	Adm. egituraren atala	Lan-Egoitza	Maila
72450799	Alberdi Rodriguez, Aitor	511430	Kirol-Programa Tek	4	Kultura	Kirol Zuzendaritza	Getxo	III-B